

BEZEROEKIKO HARREMANAK

Enpresak arrakasta izateko, oso garrantzitsua da argi eta garbi definitzea gure enpresak bezeroekin nolako harremana ezartzea nahi dugun.

Harreman hori pertsonala eta aurrez-aurrekoa izan daiteke, baina baita automatizatua ere, web-aplikazioak edo erantzungailu automatikoak erabiliz. Beraz, esan liteke enpresa baten eta merkatu-segmentu baten artean harreman mota ezberdinak sor daitezkeela aldi berean:

- Laguntza pertsonal eskainia
- Autozerbitzua
- Zerbitzu automatizatuak
- Komunitateak
- Baterako sorkuntza

Gure enpresaren helburua jendeari janaria eramatea denez, webgune bat sortzea erabaki dugu: "JakiGo.eskaerak.com". Horrela, bezeroek gure enpresak nola funtzionatzen duen irakurriko dute. Bertan, gure enpresaren helburuak eta janaria nondik eskatu daitekeen azaltzen da. Zein taberna edo jatetxeekin lan egiten dugun ere agertzen da. Bertan, eskaria nola egiten den eta eskaria egiteko telefono zenbakiak ematen dira bezeroen prozesua errazteko helburuarekin. Web gunean xehetasun osoz ematen dugu gure enpresaren berri.

Gainera, bezeroek JakiGo Txartela egiteko aukera izango dute urte guztian zehar. Honen bidez, hilerio 10€ ordainduta, eskari guztietan %5-eko beherapena egingo zaie. Honen helburua, ahalik eta bezero gehien erakartzea da eta beraien eguneroko bizitzan JakiGo enpresa sartzea, enpresaren hazkuntza ahalbidetzeko.

